

21. INFORMAZIO FITXA PR BI 160. TXAKOLINAREN EREMUTIK OINEZ

KOKALEKUA

Udalerria

Sukarrieta

Udalerraren kod.

087

Eskualdea

Gernika-Bermeo

Busturia

021

Gernika-Bermeo

Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

Orriak

03844

03852

FITXA TEKNIKOA

Homologatua

BAI

Gutxi gorabeherako denbora

2 ordu eta 30 minutu

Gehieneko desnibela (m)

50

Luzera (km)

7,2

Zailtasuna

Ertaina-Erraza

Trazatu mota

Biribila

Ibilbidearen hasiera

Altamira


Ibilbidearen amaiera

Altamira

Interesa

Natura, etnografia, paisaia, kultura

Ibilbidearen profila



ATZOKO ETA GAURKO BIDEAK BIZKAIAN

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak

Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak


Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Mapa/Krokisa



Nola Iritsi

Altamira auzora Gernika-Lumotik Bermeorako bidetik (BI-2235) helduko gara, San Kristobal auzoan bertarantz hartuta. Auzoa zeharkatu eta batera, seinale bat dago ezkerretara, eta horrek Busturiako gunexiki horretarako bidea adierazten du.

Deskribapena

Ibilbide labur honek (PR) Busturiako 4 auzoak lotzen ditu, paisaiaren eta kulturaren aldetik ondare aberatsa duten bideetatik. Altamiran irten eta, elizaren aurretik igaro ondoren, zelaietatik, baserrietatik eta txakolinaren mahats-parrako pilastra zaharretatik ibiliko gara, San Bartolome auzorantz. Baselizatik eta, aurrerago, harrobi zaharretik igaro ondoren, bidea utzi eta bidezidor bat aurkituko dugu; hori, horma inguratuz, Axpe auzoraino iristen da. Bertan Aingerubideko hariztia, Jasokundearen Andre Maria eliza (XVI. mendea) nahiz horren aurrealde gotikoa, hilarri zahar bat eta Gernikako arbolaren ernamuin bat ikusiko ditugu. Axpe auzoa zeharkatu eta Sukarrietarantz hartuko dugu, errege-bidearen trazatutik. Parkea zeharkatu ondoren, trenbidearen ondotik joango gara, Aurrezki Kutxaren udaleku ospetsuraino. Gaintxo batera igo eta, bertatik, itsasadarraren nahiz horren estuarioaren gaineko ikuspegi bikainak izango ditugu. Zelaien eta laboreen arteko errepide estu batek Axpe auzora eramango gaitu berriro. Axpe eta San Kristobal auzoak lotzen dituen auzo-bide atsegin hau Madariaga dorrearen ondotik igarotzen da. San Kristobalera iritsi ondoren, eta Gernika Bermeorekin lotzen duen errepidea zeharkaturikoan, Altamira auzora itzuliko gara, ibilbidearen abiapuntura.

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Trazatua

Ibilbidearen zatirik handiena asfaltaturiko auzo-bideetatik doa. Hala eta guztiz ere, zati batzuk lurrezko bidezidorretatik egiten dira eta zatiren batean, gainera, antzinako errege-bideko galtzadako harriak ikusiko ditugu.

Gurpil-aulkietarako gauza

Ibilbidearen zati bat. Altamira-San Bartolome-Madariaga-San Kristobal-Altamira.

Norabideko seinaleztapena

Laba beiratzuko plaka batzuek, zurezko euskarriaren edo hormaren gainean, bidea adieraziko digute. Ibilbidea bi noranzkoetan egin daiteke.

Informazioko seinaleztapena

Panel batzuek ibilbidearen trazatuari, datu teknikoei, punturik interesgarrienei eta abarri buruzko informazioa ematen dute. Ibilbidearen eskaintza didaktikoa interpretazio panel askok aberasten dute. Eskaintza oso anitza da; izan ere, basoak, interes geologikoa duten zonak, baselizak, interes etnografikoa duten elementuak eta abar identifikatzen dira

ARGAZKIAK

Ibilbideko interpretazio panelak.



Ibilbideko seinaleztapen bertikala.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Kristo Santuaren santutxo-baseliza. Axpe.



Axperen eta Sukarrietaren arteko bidearen zatia.



Txatxarramendiko antzinako otarrain-lekua, oraintsu konponduta.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Sukarrietako udaleku-etxeak.



Busturiako landazabala. Atzealdean



BALIABIDEAK

San Migel basiliza

Auzoaren erdian kokaturiko basiliza honek eliza itxura dauka. Hiru hegaleko estalkia, kanpandorea eta arkupe nahiko zabala ditu, eta sarrera nagusia azken horren azpian dago. Fatxadaren alboak bi pinakulu bitxirekin errematurik daude. Kontserbazio egoera onean daude. Irailaren 29an San Migel eguna ospatzen da. 1952tik da Altamirako parrokia



Txakolinaren mahats-parrak

XVIII-XIX. mendeetan, txakolinaren produkzioa diru-sarrera iturri garrantzitsua izan zen Busturiako auzotar askorentzat. Horren ondorioz, baserritara itsatsitako enbor-zutabeak heldu dira gaur egunera arte. Mahatsaren laborantza intentsiborako erabiltzen ziren, txakolina egiteko; ibilbidearen zati handi batean halako zutabeen ondotik joango gara.



San Bartolome basiliza

Baseliza txiki hau ibilbidearen ondoan dago, izen bereko auzoaren serreran. Ateburuaren ondoko inskripzio txiki batek aditzera ematen du 1794an eraiki zutela. Bi zutabe toskanarrek eutsitako arkupea dauka aurrealdean. Baselizaren ondoko interpretazio plakak gogora dakarkigu antzina Bermeoko arrantzaleak erromesaldian etortzen zirela basiliza honetara; aldarean arrantzaldi ona izateko eskariak idazten zituzten.



Aingerubideko hariztia

Aingerubideko hariztia Urdaibaiko harizti urrienetariko bat da; ekosistemaren balioztapena eta kontserbazioa aplikaturik dituen harizti bakarra da inguru horretan. Horrenbestez, garrantzi handia dauka eskualdeko antzinako paisaiaren lekukotzat. Harizti barrutik doan ibilbide labur batek, ekosistemari buruzko horma-irudiak eta interpretazio elementu batzuek osatzen dute ekosistema txiki horren eskaintza didaktikoa. Hariztia 1880an egindako landaketa baten ondoriozkoa da. XX. mende hasierara arte bertan egiten zen Busturiako urteroko abere-azoka (ferijje). Hortaz, Aingerubideko hariztiaren zonari Erijje esaten diote (Erijje=Ferijje=Feria edo azoka).



Axpeko hilarria

Hilarritxo hau Andre Maria eliza eta Kristo Santua santutxoa lotzen dituen guruzpidearen barruan dago. Ezpata edo gurutze txikia dauka harrian landuta.



Moruzillo haitzuloa

Hilarritik hurbil, Atxapunte haitzaren oinean, Moruzillo haitzuloa dago. Herrixkako aztarnarik antzinakoenak bertan aurkitu ziren. Aurkitu diren aztarnak adierazkortasun urrikoak direnez (landutako suharriak), datatzeko zaila den historiaurreko fase batekoak dira. Gaur egun, sarbidea itxita dago, barrunbea babesteko. Antzinako sinesmenen arabera, bertan lamiak bizi ziren. Jose Migel Barandiaranek XIV. mendeko ohitura bat jaso zuen; horren arabera, Bizkaiko Jaunek behi-erriak uzten zituzten Busturiako haitz baten gainean, Mariri egindako eskaintzat, uste baitzuten horren ondorengoak zirela.



Andre Maria eliza

Atxapunte haitzaren oinean Axpeko Andre Maria eliza dago. Estilo gotikoa dauka eta XIV. mendean berreraiki eta handitu zuten. Dirudienez, zimenduaren azpian Axpeko Andre Maria monasterio zaharraren aurriak daude, eta hori Bizkaiko Jaunek Donemiliagari eman zioten dohaintzan, 1050ean. Aipagarria da aurrealde gotikoa, baina guztiz alferrik galduta dago, denboraren joanaren eta harriaren kalitate txarraren eraginez; hala eta guztiz ere, oso ederra da.



Kurtziganeko karobia

Karobi hau Kurtzigane baseritik hurbil dago, errege-galtzadaren ondoan. Karobi txiki hau garbitu eta interpretatu egin zuten, halako elementuen adibidetzat. Antzina, udalerriko auzo askotan karobiak zeuden. Auzo batzuetan, gainera, baserri bakoitzak bere karobia zuen. Halako eraikuntzen helburua karea egitea zen, kareharrian oinarrituz, eta hori, gero, baserrien hormak zuritzeko, laboreak ongarrizatzeko, janari batzuk kontserbatzeko eta abarrerako erabiltzen zen.



Errege-bidea

Gernika eta Bermeo (Busturiatik igarota) lotzen zituen antzinako errege-bidearen zati handia oraingo errepidearekin bat dator. Hala ere, antzinako galtzadaren zati batzuk onik atera dira gizakiaren presiotik, eta bide-ondarearen adibide baliotsua osatzen dute. Kurtziganeko galtzadak dauka kontserbazio egoerarik onenetarikoa, Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan. Bide horietatik merkatariak eta erromesak ibiltzen ziren. Baina Bizkaiko Jaunak ere bertatik ibili ziren, Bermeoko Santa Eufemia zin-elizarako bidean, zin-bidea izenez ezagutzen dugun ibilbidearen barruan.



Txatxarramendi uhartea

Txatxarramendi Mundakako itsasadarraren estuarioko uharterik handiena da. Zubi handi baten bidez lotuta dago Sukarrietarekin, eta bertatik, uhartearen inguruko hondartzetara eta barruko parke botaniko txikira joan daiteke. Parkearen barruan, ibilbidetxo bat dago artaditik, eta bertan, plaka askok ekosistema honetako espezie nagusiak eta horri loturiko fauna identifikatzen lagunduko digute. Iraganean, uhartean hotel ospetsua egon zen. Horren lekuan, gaur egun, Teknologia, Arrantza eta Elikadura Institutua dago (AZTI).



Madariaga dorrea

Erdi Aroko azken fasean gatazka asko eta odoltsuak egon ziren Jaurerriko leinuen artean. Eskualdeko leinurik garrantzitsuenetarikoa, Madariaga leinua, gotorturiko eraikin honetan bizi izan zen. Muino txiki baten gainean dago eta, bertatik, erraz kontrolatzen da Gernikatik Bermeorako bidea.



EKIPAMENDUAK

Atsedenekua

Aurrezki Kutxaren udaleku-etxean kokaturik, San Antonioko atsedenekua dago; aparkalekua, mahaiak, aulkiak eta iturriak ditu. Zonan bisitarik gehien jasotzen duen zonetariko bat da; izan ere, kolonia-etxetik eta San Antonio hondartzatik hurbil dago.



Haurren jolasak

Ibilbidean haurren jolas asko dago: San Kristobalen, Axpen eta Sukarrietan.



Aparkalekua

Sukarrietako atsedenekuaren ondoan udal aparkaleku handia dago; San Antonio hondartzara doan jendeak asko erabiltzen du, batez ere udan. Bidearen ondoko bakarra izan arren, ibilbideak zeharkaturiko auzoetan (ibilbidea hasteko aukera ematen duten auzoak) ez dago

ZERBITZUAK

Ostatuak

San Kristobal auzoan Ontxene nekazaritza-turismoa dago, Busturiako ostatu bakarra. Ibilbide labur hau baserriaren ondotik igarotzen da; baserria muino batean kokaturik dago eta, bertatik, Mundakako itsasadarraren eta horren estuarioaren gaineko ikuspegi bikainak daude.

Tabernak eta jatetxeak

Ibilbideak zeharkaturiko auzo guztietan taberna asko dago. Jatetxeei dagokienez, ondoen prestatuta dauden auzoak Axpe eta San Kristobal dira, baita Sukarrieta udalerria ere.

Interpretazio zentroa

Urdaibai Biosfera Erreserbako Interpretazio Zentroa gaur egun eraikitzen ari diren Madariaga dorrean egongo da.

Garraio publikoa

Busturiako auzo nagusiak ondo komunikaturik daude, Bilbo Bermeorekin lotzen duten Renferen eta Bizkaibusen lineen bitartez. Linea horiek maiztasun handia dute, eskualdeak ahalegin handia egin baitu garraio publikoa sustatzeko.

OHARRAK

Ordubete inguruko ibilbide laburrak nahiago dituztenentzat, ibilbide honek bi etapa laburretan egiteko aukera eskaintzen du, zirkuitua Axpe auzoan itxi daitekeelako, bi kiribil eratuz.